

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Monogamia, Poligamia eta Poliginia Erdi Aroko Mundu Islamikoan

Iranzu Larrondo Barcena

2021/2022

Historiako Gradua

Tutorea: Jesús Lorenzo Jimenez

Saila: Erdi Aroko Historia

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Gizarte monogamoak	5
a. Greziar ezkontza eta familia eredua.....	6
b. Erromatar ezkontza eta familia eredua.....	6
c. Monogamia poliginikoa garai klasikoan.....	8
d. Kristautasunaren etorrera: ezkontza monogamoak.....	9
e. Poliginia kristauen artean.....	11
3. GIZARTE POLIGAMOA	12
3.1. Poligamia islam aurreko gizartean	12
f. Gizarte arabiarra.....	12
g. Poligamia eta endogamia.....	15
h. Poligamia eta ohorea.....	15
3.2. Poligamia mundu islamikoan	16
4. Ezkontza sistema islamikoaren ezaugarriak	19
5. Poliginia eta ohaidetza	22
6. Ondorioak	25
7. Bibliografia	27
8. Iturriak	28

Laburpena: Lan honek aztergai izango du islamaren etorrerak berekin ekarri zuen ezkontza sistema eredu eta mundu islamikoaren testuinguruan elkar bizitzen diren bi ezkontza sistema desberdinak. Beraz, lanak bi gizarte desberdinen ezkontza praktika desberdinak konparatuko ditu. Lehenik, monogamia aztertuko da eta kristautasunak greziar eta eromatar eredutik sistema monogamoa hartu zuela azalduko da. Ondoren, Islamak Koranaren eta eskola juridikoen bidez proposatzen duen ezkontza sisteman sakonduko da, baita Islamak poligamia eta poliginia onartzen dituen egoera berezietan ere. Guztiarekin, bi sistemek izaera instituzional eta juridiko finko bat dutela ondorioztatuko da, eta ezkontza eredu batek gizarte bat antolatzeke gaitasuna duela ere.

Abstract: This paper analyzes the model of marriage that implied the arrival of Islam and the two different marriage systems that coexist in the context of the Islamic world. Therefore, the work will compare the different matrimonial practices of two different societies. First, monogamy is analyzed and it is explained that Christianity adopted the monogamous system from the Greek and eromatic model. Subsequently, the marriage system proposed by Islam through the Koran and the Legal Schools will be deepened, as will the special circumstances that polygamy and polygyny allow. It follows, however, that both systems have a fixed institutional and legal character and that a matrimonial model has the capacity to organise a society

Hitz gakoak: Poligamia, poliginia, ohaidetza, leinua eta sistema agnatikoa.

1. Sarrera:

Lan honen helburua, mundu islamikoan ezkontzak eta batez ere, poligamiak eta poliginiak izan zuen izaera instituzional eta juridikoa ezagutzea izan da. Horretaz gain, mundu islamikoaren testuinguruan existitzen diren bi ezkontza sistema desberdinak aztertuko dira: poligamia eta monogamia, hain zuzen ere. Hortarako, beharrezkoa da, lehenik, monogamia aztertzea, nondik datorren kristautasunak hartu zuen sistema, eta azkenik, Islamak Koranaren eta eskola juridikoen bidez proposatzen duen ezkontza sistema, poligamia onartzen duena. Bi sistemen konparaketan, abiapuntua hurrengo galderek markatu dute: Zer ekarpen ekarri zituen Islamak ezkontza sisteman? Asko aldatu ahal zen jada islam aurreko gizartean zegoenarekin alderatuta? Eta poligamia? Nola arautzen du Koranak poligamia? Gizarte poligamoa zertan bereizten da gizarte monogamo batekin?

Horretaz gain, naturaltasunaren eta “normaltasunaren” kontzeptuak izan ditut buruan. Dena da kulturala eta ezkontza eredu desberdinek (monogamia eta poligamia) sortzen dituzten ordena sozialak, biak ala biak, dira naturalak. Mendebalde-Ekialdearen dikotomian sakontze nahiak bultzatu dit gaia aukeratzen. Izan ere, gure arrazakeria ikasi eta oraindik *desikasiak*, “anormaltzat” ikusten ditu mendebaldeko kulturatik kanpo geratzen diren jarrera eta bizimoduak. Iruditeria kolektiboan barrura arte sartuta dugu Mendebaldea dela zibilizatua eta Ekialdea, berriz, barbaroa eta basatia. Gizartea antolatzeko modu desberdin asko daude, eta gurea, mendebaldekoa, ez da bakarra eta are gutxiago beste gizarteentzako eredugarria. Lan honek, familia nuklearraren baitan sortzen den mendebaldeko eredu monogamikoaz aparte, gizartea antolatzeko beste ordena bat badagoela erakutsiko du.

Jakina da, kultura guztiak moralitate batek gorpuzten eta mugatzen dituela. Beraz, zeri erantzuten dio moralitateak eta arau batek? Zein da arau eta ordena guztien atzean dagoen logika? Biziraupenerako estrategia izango ote da arrazoi nagusia? Gauzak horrela, zergatik etnia batzuek endogamia praktikatzan duten bitartean beste komunitateek exogamia lehenesten dute? Zergatik debekatzen dituzte gertuko ezkontzak kultura batzuek? Zer da intzestua kultura ezberdinentzat? Eta, zergatik kristautasunak debekatzen du poligamia? Edo beste era batera esanda, zergatik kultura batean poligamia praktikatzan da eta besteetan debekatu? Gainera, dibortzioa zergatik ez dago ondo ikusia kristauen artean? Eta ohaidetza, zer dio Bibliak honen gainean? Galdera hauek, kulturala den guztia azaldu behar dela argi uzten dute.

Izan ere, sinesmenek eta sistema moralek logika eta praktikotasun bati erantzuten diote. Marvin Harrisen *Vacas, Cerdos Guerras y Brujas* liburuak honen inguruan dihardu. Obra honen proposamena enigma bitxi batzuei erantzuna ematea da, hala nola, zergatik debekatzen dien tabu erlijioso batek juduei eta musulmanei txerri-haragia jaten edo zergatik miresten dituzten hinduek behiak. Horrez gain, kultura-formazioen bizimoduaren itxurazko irrazionaltasunaren atzean ezkututzen diren kausa materialak aurkitzea ere izango litzateke helburua. Kasu honetan, ezkontza eta leinuen formakuntzan sakonduz gero, arabiar-musulmanen egitura sozialaren praktikotasuna ulertuko dugu.

Lan honen gaira itzuliz, ezkontza sistema musulmanaren inguruan hasi aurretik, ezkontzaren garrantzia historia osoan zehar nabarmenekoa da. Ezkontzak eskubideak sortzen ditu baita erlazioak instituzionalizatu ere. Gizarte guztietan dago ezkontzaren kontzeptua, hau da, ezkontideen arteko aliantza. Ezkontza kontratu bat da, eta, beraz, baliokidetasun eta korrespondentzia betebehar orokorraren mende dago. Horrela, ez betetzeagatiko desegitea arautzen duten legeen mende dago (Chalmers, 1995: 54). Familia gizarte-bizitzan hain estandarizatuta dagoen gizarte-taldekatzeko modu bat den bezala, ezkontzak elkartzeko modu bat dakar berekin eta gizakien artean hain maiz gertatzen denez, instituzio bat sortzen du (Gómez Pellón, 2017: 2). Horrenbestez, ezkontzak gizarte harremanak egituratuko ditu, ezkontza ereduak ahalmena baitaika gizartea antolatzeko. Gizarteak ordena bat behar du, erlazionatzeko ordena bat eta ordena horrek markatuko du gizartearen izaera, azkenik, egitura politiko bat sortuz. Gizarte tribaletan zein ez tribaletan ezkontza esanahi politiko handiko kontua dela esan genezake, inplikazio sozial eta ekonomiko sendoak dituen. Ezkontzaren garrantziaren isla da, hainbat etniek zelibatua bekatutzat hartzea edo sozialki oso txarto ikusita egotea, hala nola, Ekialdeko juduek eta babiloniar zaharrek. Guzti honetan, emakumeak, ezkontzak hainbesteko garrantzia duen mundu batean, rol protagonikoa hartzen du, familia baten ordezkari gisa. Eta ez hori bakarrik, botere legitimatzaile horrek emakume batzuk ere boterera eraman zituen. Modu berean, ezkontzatik, beretik eratorritakoei, dibortzioari, ondorengotzari eta zaintzari, hain zuzen ere, beharrezko arreta eman behar zaie.

Arestian esan bezala, Mendebaldeko ikuspegi batetik arrotz eta ezezaguna egiten zaigun hori azaldu aurretik, ezagutzen duguna nondik datorkigun azpimarratzea nahitaezkoa iruditu zait. Horregatik monogamiaren eredu hartu dut abiapuntutzat, geroago sistema poligamikoarekin konparatu ahal izateko. Greziar eta Erromatar gizartea eredu honen erregela ditugu, kristautasunaren sistemaren aintzindaria izanda.

2. Gizarte monogamoak:

Antzinate berantiarrean eta Goi Erdi Aroan, familiaren zelula nuklearrak garrantzi handia hartu zuen, zuzenbide erromatar arkaikoan eta baita klasikoan ere zuenarekin kontrastean. Kontua ez da aurreko munduan ezkontideek eta seme-alabek osatutako unitateak garrantzirik ez izatea, baizik eta familia-gaien ondare-antolamenduak ez izatea erdigune eta izateko arrazoi. Ondasunak oso gutxitan ateratzen ziren zirkulu estu horretatik beste ahaide batzuen ondarrera; izan ere, familia nuklearra iraungitzen denean bakarrik gertatzen zen hori (Vial Dumas, 2015: 141).

Familia nuklear sinplea, oro har, egoitza- eta gizarte-antolamendu guztien oinarria dela uste izan da, eta, badira ezaugarri hori Erroma berantiarrekoa dela uste izan dutenak (Goody, 2001: 33). Erroman ezkontza monogamoa izan zen, eta beti zaindu zen ezkontza horren zorrotasuna betetzen zela, eta horren froga da bigamia doilorkeriatzat jotzen zela edo kargu publikoak betetzeko gaitasunik gabe uzten zela. Modu berean, Erroman ezin zen bigarren ezkontzarik egin lehenengoa desegin gabe, *stuprum*-aren bidezko laido-zigorren pean, eta geroago zuzenbide justinianoan¹ heriotza-zigorra, bai gizonarentzat, bai emakumearentzat ezartzen zelarik (Guillén, 1997: 146).

Munduko historiari erreparatuz, gizarte antolakuntzak izaera poligamotik hasi eta formalki monogamora egin du. Greziar eta erromatar gizarteek espektro honetan, bitarteko eta trantsiziozko posizio iragankor bat izan zuten, monogamia poliginikoa etiketatzeko modukoa (Scheidel, 2011: 108-116) Izan ere, ezkontzaren helburu nagusia oinordeko legitimoak sortzea izanik, bertute sexuala emakumeentzako ezaugarririk garrantzitsuena izango da, eta ezkontzaz kanpoko edozein sexu-jarduera sexu-transgresiotzat hartuko da. Gizonak, aldiz, ez dira mugatzen beren emazteengana bikote sexual gisa, baizik eta sexu-jarduerak egin

¹ Flavio Pedro Sabazio Justiniano, Justiniano I.a Handia bezala ezagunagoa, Ekialdeko Erromatar Inperioko enperadorea izan zen 527. urtetik hil zen arte. Bere erregealdian, Erromatar Inperio klasikoaren antzinako handitasuna berpiztea bilatu zuen, Mendebaldeko Erromatar Inperioko lurralde galdu asko birkonkistatuz. Inperioaren berrezarpenaren nahi horrek, *Recuperatio Imperii* deritzon programa militarra abian jartzera bultzatu zuen. Horretaz gain, VI. mendean, Erromako zuzenbidearen bilduma sortu zuen, *Digesto* deritzona. *Corpus iuris civilis*-a osatzen zuten zatien artean, *Digesto* izango litzateke aurrekaririk gabeko bakarra. Obra monumentala 533ko abenduaren 30ean amaitu zen eta horretarako, beharrezkoa izan zen juristen obra jasoko zuen lege-gorputz bat idaztea. Justiniano I.ak zuzenbide klasikoa berriro zuen, jurista klasikoen legeak eguneratuz, Gallo juristarenak, besteak beste. Honetaz gain, kontuan hartu behar dugu, momentu honetan Elizak bere dogmak definitzen ari zela eta Justiniano I.ak izugarritzko garrantzia izan zuela guzti honetan. Izan ere, 553. urtean Konstantinopla II. Kontzilioa ospatu zen Justiniano I.ak deitua. Bertan kristauen batasuna ezarri zen, erlijio kristau historikoen batasuna bilatuz. Horregatik, esan dezakegu Elizak asko zor diola Justiniano I.ari eta Antzinaroa eta Erdi Aroa lotzen dituen pertsonaia esanguratsua dela (Cameron, 1993: 118-140).

zitzaketen beren esklaboekin, merkataritza-prostitutekin eta hiritar mutilekin (Glazebrook eta Olson, 2014: 71).

a. Greziar ezkontza eta familia eredua:

Alde batetik, garai historikoan, greziarrek ezkontza monogamoa egiten zuten eta barbarotzat hartzen zituzten ezkontza mota hau praktikatzen ez zituztenak. Izan ere, Persiar Inperioko akemendarren klase gobernatzaileak poligamia praktikatzen zuen eta traziarrak bigamia, baita agintari mazedoniar helenizatuek eta haien kideek ere emazte anitz hartzen zituzten. Hala ere, monogamia derrigortua greziarra izatearen ezaugarri determinatzailea izaten jarraitu zuen eta ugalketa legitimo eskusiboa eta ko-egoitza fisikoa ziren greziar monogamiaren ezaugarri definitzaileak (Scheidel, 2011: 110-111).

Antzinateko Greziaren kasuan, Alexandro Handiaren heriotzarekin, errege eta erresuma helenistak etorri ziren, eta horrek amaiera eman zion polisari eta hiritar bakoitzaren eginkizun politiko aktiboari. Gainera, aldaketa handiak ekarri zituzten ezkontzaren instituzioan. Agintean zeuden eliteetako kideen arteko poligamia nagusitasun politikoa erakusteko eta nazioarteko harremanak sustatzeko bide bihurtu zen. Ezkontza monogamoa nagusi zen oraindik ere; baina, Grezia arkaiko eta klasikoaren aldean, ezkontza gizon eta emakumeentzako gune bihurtu zen, hiritarrek harreman pertsonalei begiratzen baitzieten beren beharrak betetzeko (Glazebrook eta Olson, 2014: 74). Atenastarrak ez zeuden familia zabalaren alde. Herentzia seme-alaba guztien artean banatzen zen gizarte batean, kosta ahala kosta saihestu behar zen familiaren aberastasuna zatitzen zuten seme asko eta dotea jasoko zuten emakume ugari izatea (Connolly, 1998: 32). Geroago ikusiko dugun moduan, eredu islamikoa honen kontrakoa izango da erabat, musulmanek familia zabalak osatzen dituztelako.

b. Erromatar ezkontza eta familia eredua:

Bestetik, ez da izan Erromarekin berdintzen zuen herririk familia-zuzenbideko erakundeen zehaztapenean. Familia-burua, *pater familias* zen, etxeko pertsona eta gauza guztien jabea. Bere agintea erabatekoa zen, eta ez zen aldatzen ez semearen adinagatik, ez egoera politikoagatik, ez betetzen zituen funtzio publikoengatik. Emakumea etxekoa zen, ez hirikoa, eta etxean beti zuen jabea. Ahaidetasun zibila agnatuek bakarrik osatzen zuten, hau da, arbaso

bereko gizon baten bidezko ondorengoek. Familia gizarte erlijiosoa eta zibila zen, izaera instituzionalizatua hartzen zuena. (Guillén, 1997: 111) Erroman, oinarrizko araua zen libre jaiotako emakume guztiek ezkondu egin behar zutela. Loturak aliantza politikoak, sozialak edo ekonomikoak sendotzeko adostu ohi ziren. Ezkontza-aliantzek Erromako politikaren gertakari nagusietako batzuk sostengatu zituzten Errepublikaren amaieran (Beard, 2015: 330). Erromako ezkontzaren helburu nagusia, iraganeko kultura guztietan bezala, seme-alaba legitimoen kontzepzioa zen, bi gurasoak hiritarrak izanez gero automatikoki erromatar herritarraren estatusa heredatzen zutenak (Beard, 2015: 334). Legez ezkontzeko *ius conubii*, erromatar hiritarren eta erromatar aliatu batzuen pribilegioa behar zen. *Ius conubii* delakoa ez edukitzeak esan nahi zuen ezin zela legez ezkondu erromatar zuzenbidean, eta, elkarrekin bizi eta seme-alabak sortzen baziren, erromatar zuzenbideak ez ziren ez batasunik ez seme-alabarik aitortzen (Glazebrook eta Olson, 2014: 78).

Gainera, familia, *gens*² eta *sakra privata*-ren betikotasuna ziurtatu behar zen. Horregatik debekatuta zegoen zelibatua, hiriko zentsoreek hiritar ezkongabeak gaitzesten zituzten, eta legeek eskubideak mugatzen zizkieten (Guillén, 1997: 126). Augustok ezarri zuen 20 urteko emakumeak eta 25 urteko gizonak, ezkongabe jarraitzen zutenak, zigortuak izango zirela (Connolly, 1998: 151). Emaztea senarraren familia zibilean sartzen zen, eta senarrak bere gain zeukan agintea. Emakumea bere senarraren duintasun eta izaeraren partaide bihurtzen zen, bere plebeia edo libertina nolakotasuna eten gabe (Guillén, 1997: 143).

Ezkontzari lotua, Erromatarrek betebeharrak sozial handia izan zuten emaztegaiari ezkonsaria emateko (hau da, ezkongaiaren familiak senargaiari ematen dion diru edo ondasunak). Hau, neurri batean, ezkontza ezkonsaririk gabe burutzen bazen, elkarketa ohaidetzat har zitekeelako da (Glazebrook eta Olson, 2014: 76), eta ohaideekin izandako seme-alabak ez-legitimoak ziren.

² Onartuta dago *gens* erromatarra *gens* grekoaren erakunde berdina zela. Ondasunak *gens*-aren barruan geratzen ziren beti. Erromatar *gens*-ean aitaren zuzenbidea nagusi zenez, baita grekoan ere, herentziatik kanpo zeuden emakumeen lerroko ondorengoak. Hamabi Tauletako legearen arabera, seme-alabek oinordeko zuzen gisa jaraunsten zuten lehenik; seme-alabarik ez bazegoen, agnatuek heredatzen zuten (gizonezkoen lerroko ahaideak); eta hauek falta zirenean, jentilek. Ondasunak ez ziren inola ere *gens*-etik ateratzen. Hemen ikusten dugu mailaz maila lege-xedapen berriak sartu zirela *gens*-aren ohituretan, aberastasunaren gehitzeak eta monogamiak sortuak. *Gens*-aren barruan ez ezkontzeko betebeharrak zegoen. Emakumeak, ezkontzean, bere eskubide agnazioak galtzen zituen, bere *gens*-etik kanpo irtetzen zen, eta ez berak ez bere seme-alabek ezin zuten bere aitarengandik edo honen anaiengandik heredatu, bestela aitaren *gen*-sak herentziaren zati hori galduko bailuke (Engels, 1884: 80).

c. Monogamia poliginikoa garai klasikoan:

Arestian aipatutako monogamia poliginikoari berriro helduz, esan bezala, Greziar klasikoan gizon ezkonduak ohekideak eta emakume esklabuekin erlazio sexualak euki zitzaketen. Hau Erromara arte iritsi zen, non gizon ezkonduak esklabuekin izandako harreman sexualak ez ziren legez adulterio gisa kontsideratuak. Justinianok ezarri zuen ohaidetzaren legez kanpoko izaera, K. a. VI. mendean. Badakigu, heroi Homerikoentzat erlazio poliginikoak ohiko praktikak zirela, Greziar gerrako buruzagiei emakume gatibuak esleitzen zizkieten gozamen pribaturako. Gizon ezkonduak, emakume horiek fisikoki beren egoitza nagusietatik eta bere emaztetik bananduta izaten zituzten. (Scheidel, 2011: 111).

Ohaidetza erromatar zuzenbidean *affectio maritalis* gabeko gizon eta emakume baten arteko batasun egonkorra zen, sexu-harremanak soila. Legeak ez zuen zigortu, eta garaiko kontzientzia sozialean onartua izan zen. Augustoren ezkontza-legeek, *Lex Iulia et Papia Poppaea*, *Lex Iulia de Adulteriis* izenekoek, hura hedatzen lagundu zuten, nahiz eta zenbait debeku ezarri baldintza baxuko emakumeei.

Bai Grezia zein Erroma klasikoan eliteak soilik praktikatzen zuen poliginia, enperadore klasikoen ohiko jarrera inperiala izanik. Beraz, gizarte klasikoan, boteretsuenen arteko monogamia poliginikoak definitzen zituen ezkontza erlazioak. Gainera, kontuan eduki behar da, Greziak eta Erromak monogamia modu instituzionalizatu bat bultzatu zutela jendetza gehiengoa esklabua zen gizarte batean eta libreki erabil zitezkeenean. Horregatik, teoriarik monogamia deitzen zena poligamia mugagabea zen (Philips eta Jameelah, 2005: 15). Poliginia ez zen, hala ere, poligamia formalaren parekoa. Buruzagi greziarrek ez zituzten seme ez-legezkoak inoiz onartuko eta Atenas klasikoan soilik emazteek eman zezaketen seme legitimoak eta ez, ordea, esklabu sexuak. Beraz, monogamia poliginikoaren eredu hori arau bihurtu zen bai greziar kulturari, bai erromatar kulturari, ezkontza-monogamiko eskusiboa eta gizartean baztertutako esklabu-harrapakinarekin batera erlazio sexualak praktikatzen zituen eredu (Scheidel, 2011: 114). Erlazio poliginiko hauek ez dira arabe-musulmanek praktikatu dituztenaren bestelakoak izango, bi kasutan, poliginia aliantza politikoak hedatzeko eta egonkortzeko bide bat izan ohi da eta gizon aberatsenek soilik dute aukera emakumeekin modu honetan erlazionatzeko (White, 1988: 534-552). Hala ere, ikusiko dugu zelan esklabu sexuarekin izandako seme-alabek tratatu desberdin bat jasotzen duten gizarte islamikoan.

d. Kristautasunaren etorrera: ezkontza monogamia

Nolanahi ere, Kristautasunaren etorrerak errotik aldatu zituen Europako familiaren oinarriko alderdi asko. Badira ustezko ezaugarri hori eragin germaniarrari egotzi diotenak. Hala ere, erromatar *gens*-aren debaluazioak eta germaniar tribuen antolaketa bilateralak aldaketa horiek sustatu zituztela defenda daiteke (Goody, 2000: 37).

Ezkontzari buruzko ideia kristau asko erromatar diskurtso moral paganoen artean zebiltzan, baina Eliza izan zen estatus sakratua esleitu ziona. Printzipio kristauak familia nuklearraren eta berau eratzen duen zuzenbidearen naturaz gaindiko oinarrian eratu ziren. Ezkontzaren pixkanakako kristautzearen bideak Mediterraneoko gizartearen, erromatarren eta erromanizatutako germaniar herrien eragina izan zuen. Kristautasunaren etorrerarekin, lege berrirako aldaketa garrantzitsu eta nagusi bat hurbileko ahaideekin ezkontzeko debekua izan zen. Horrela, Gregorio II Aita Santuaren kontzilioak, Erroman 721 urte inguruan ospatu zenak, senideen arteko ezkontzaren debekua ezarri zuen (Goody, 2000: 34).

Debeku horiek zuzenean Bibliaren praktiken aurka zihoazen (lege juduak hurbileko ahaideen arteko ezkontza baimendu eta sustatu ere egiten zuen), bai eta erromatar zuzenbidekoen aurka ere, hurbileko ezkontza ahalbidetzen baitzuten. Gertuko arteko ezkontzak bai Grezian zein Erroman, familiaren estatusa bere horretan mantentzen laguntzen zuen, arrazoi ekonomikoek bultzatzen zuten ezkontza hauek gauzatzera. Heleniar zibilizazioan, anaiaren alabarekin ezkontzea ez zegoen bakarrik onartua, baizik eta suhertasunez kontsideratua zen, erakunde-balioa zuen. Hildako batek alaba bat besterik uzten zuenean, *epiklera*³, normalean, aitaren ahaiderik hurbilak hartzen zuen emazte gisa. (Guichard, 1976: 69). Horrela, lehen lehengusuak ezkon zitezkeen; aldiz, anaiak eta arrebak, ez. Beraz, Kristautasunak monogamia exogamikoa babestu zuen bitartean, gertuko arteko ezkontza islam aurreko gizartean eta islamikoan oso ohikoa izan zen.

Honen harira, Elizak intzestuaren debekua zabaltzea aldaketa garrantzitsuaren erantzule izan zen, endogamiatik exogamiara egitearena, Erdi Aroko eta Aro Modernoko ezaugarrietako bat

³ Antzinako Atenasen eta Greziako beste hiri-estatu batzuetan aitaren oinordeko bakarrari buruz hitz egiteko erabiltzen zen terminoa zen, aita hildakoan bakarrik geratzen zen alaba (Goody, 2000: 27).

izanik (Goody, 2000: 31). Lévi-Straussen arabera (1998: 45), ikuspegi orokorrenetik, intzestua debekatzeak adierazten du odolkidetasunaren egitate naturala aliantzaren egitate kulturalera igarotzea. Beraren hitzetan, exogamiaren beharrezkotasunak bultzaten du intzestua tabu bihurtzera eta ondorioz, honek ezkontzaren murrizketa ekarriko luke. Hala ere, familia nuklearretik aterata, intzestuaren debekua ez dator bat lotura biologikoekin, gizarte bakoitzak ahaidetasunaren loturei buruz egiten duen interpretazioarekin baizik (Gómez Pellón, 2017: 10). Endogamiatik exogamiarako salto hau ulertzeko, ahaidetasunaren debekua arrazoi sozialek, politikoeak, ekonomikoak eta erlijiosoak ezartzen dutela jakin behar dugu, eta, funtsean, familia aristokratikoetan kapital handiak metatzea eragozten du debeku honek. Dibortzioa debekatzea eta bigarren ezkontzei mesfidantzak egitea familia handien ondare-estrategien aurka egin zuten aldarrikapenen adibide garbiak dira. Senar-emazteentzat debekatutako ahaidetasun mailak handiak izan ziren eta Elizak familia boteretsuei jarritako oztopo handienetako bat ere izan ziren. Izan ere, endogamia ondarearen sakabanaketa saihesteko praktikatzan zuten (Vial Dumas, 2015: 159).

Hurbileko ezkontzaren debekua ez zen izan, noski, kristautasunak ekarri zuen aldaketa bakarra, Elizak dibortzioa ere debekatu zuen. Hala ere, ondorioetako bat, zalantzarik gabe, jaraunspen estrategiak mugatzea izan zen, gizarte monogamoan oinordekoa bilatzeko modu garrantzitsu bat emazte antzuegandik dibortziaztea baitzen, beste bat izateko (Goody, 2000: 34).

Hala, Mendebalde osoan, Erdi Aroan zehar zabaldu ziren ideia kristauak hurrengoak izan ziren: elkarren arteko fideltasuna, dibortzioaren debeku partziala, ezkongaien adostasuna, eta, bereziki, bi ezkontideen arteko parekotasuna, biak *pactum inter aequales*-aren partaide izanik, senar-emazteen maitasuna, eta amatasunaren gorespena karitatearen adierazpen nagusi gisa, besteak beste (Vial Dumas, 2015: 9).

e. Poliginia kristauen artean:

Kristauen poliginia erlazioei dagokionez, aldi klasikoan, ohaidetza ez zen juridikoki arautua egon, bai, ordea, enperadore kristauekin. Hala ere, Justinianok faborezko tratua eman zion ohaideari, Augustoren debekuak indargabetu zituenean, edozein baldintzetako emakumearekin batasun egonkortzat hartuz. Gainera, ohaidetzari ezkontzaren baldintzak aplikatu zitzaizkion, monogamia, hamabi urteko adina emakumearentzat eta baita ahaidetasunaren eragozpenak ere (Parra Martín, 2005: 240).

Ildo berekin jarraituz, monogamia delakoak ez zuen paper zentralik jokatzeko hasierako idazki kristauean. Elizgizonen ohaidetza normala izan zen XI. mendeko erreforma gregorianoetara arte (Goody, 2001: 43). Alta, ez dago poliginia debekatzen duen juduen idatzirik, eta lehen kristauak poliginikoak ziren juduen tradizioari jarraituz. Epaile guztiek emazte bat baino gehiago izan behar zuten. Salomon erregeak, adibidez, zazpiehun emazte eta hirurehun ohaide izan omen zituen. Talmudeko jakintsuek ere, orotara lau emazte izatea aholkatzen zuten, Jakobek lau emazte izan zituelako. Judutarrek, beraz poligamia praktikatu izan zuten Islama sortu aurretik eta bere praktika XI. mendera arte legeztatuta egon zen, XI. mendearen hasieran Worms-en Sinnodo Errabinikoaren deialdian debekatua izan zen arte. Hau guztiarekin batera, 1531, Anabaptistek argi esan zuten benetako kristau batek emakume bat baino gehiago izan behar zuela eta 1650ean Kristauek defendatzen zuten gizon batek eskubidea zuela bi emazte izateko. Izan ere, kristautasuna Pauliar doktrinaren arabera berraztertua izan ondoren bakarrik sartu zen monogamiaren kontzeptua filosofia kristauean (Philips eta Jameelah, 2005: 14). Ildo beretik jarraituz, ez zen monogamia derrigortu, 1563an Trentoko Kontzilioan Elizak poligamia praktikatzeko debeku argia ezarri zuen arte (Goldfeder, 2013: 23).

Sistema monogamoaren azalpen honek bidea ireki digu sistema poligamoaz hitz egin ahal izateko. Ikusiko dugu mundu islamikoan ezkontzaren funtzionamendu orokorra, eta baita poligamia islam aurreko gizartean eta islamiar munduan ere, poligamia eta poliginia praktikak islamaren etorrera baino zaharragoak baitira. Ildo berdinetik, endogamiaren konpentsazioa poligamia eta poliginiaren bitartez lortzen dela aztertuko da.

3. GIZARTE POLIGAMOA:

Poligamia eta ohaidetza praktikak musulmanen ohiko ohiturak direla jakin badakigu. Poligamia, emazte anitzen arteko ezkontza-harremani deritzo eta soilik gizonezkoek dute aukera. Aipatzekoa da, islamaren aurretik, poligamia oso ezaguna izan zela herri zaharren artean. Familia erregional eta aristokratikoei lotutako *harem* handiak, antzinako Ekialde Hurbiletik ezagutzen dira (Egiptotik, Mesopotamiatik, Iranetik eta Itun Zaharreko tradiziotik), India, hego-ekialdeko Asiatik, Txinatik, kolonurreko Ameriketatik. Baita, Babilonia Zaharra, Asiriako erdialdea eta Sasandar Persiako tradizioak ere. Sasandarren arteko poligamia erregeen eta dignatarioen pribilegio zaharra zen. Alde batetik, gizonezkoen ondorengotza ugari izateko beharretik sortu zen, tronuaren oinordeko ahaltzuen hautatzeko aukera emango lukeena, bestetik, familia aristokratiko gorenekin ezkontzatik eta akordio politikoak sendotzea helburu zuten aliatuetatik praktikatzen zen (Maksymiuk, 2019). Islam aurreko munduan poligamia existitzen zen, gizonak ez zuen mugarik nahi beste emakumeekin ezkondu ahal izateko eta emakume kopuru mugagabea tribuen arteko gerra ugarietarako gizon eskasiaren ordain gisa justifikatu zitezkeen (Jawad, 2008: 184).

3.1. Poligamia islam aurreko gizartean:

a. Gizarte arabiarra:

Lehenik eta behin, arabiarren jatorria zehaztea nahi izan dut, Islamak arabiar etniaren tradizioa bereganatu zuelako, arabiar ohiturak erlijio berrira gehituta geratu zirelarik. Islamaren etorreraren aurretik, ondo bereizitako kultura arabiarra zegoen, tradizio arabiarra generazioz generazio mantendu izan baita. Arabiar teoriaren arabera, arabiarrek etnia bat osatzen dute, eta ez soilik hizkuntza bera hitz egiten duten herrien komunitate bat. Arabiar egileen kronika eta kontakizunetan arabiar terminoak ia beti nomada edo beduinoa⁴ esan nahi du. Mahomarentzat eta bere garaikide sedentarioentzat, arabeak basamortuko beduinoak ziren, eta Koranean zentzu horretan bakarrik erabiltzen da hitza. Hala ere, esan beharra dago Islama sortu aurretik arabeek hiri eta egitura politiko ekonomiko handiak sortu zituztela eta

⁴ Hasiara batean, gameluak heredatu zituztenak bakarrik deskribatzeko asmoa bazegoen ere, beduino Ekialde Hurbileko tribu nomada arabiar hiztun guztien izen orokorra bezala ezagutua izan da (1997: 448).

arabe guztiak ez zirela nomadak izango erlijioa fundatu aurretik, une hartan arabia ez baitzen leku bakartu bat, Ekialde Hurbileko eta ekialdeko Mediterraneoko lurak hartzen dituen kultura-mundu askoz zabalagoaren parte zen (Donner, 2010: 1). Beraz, arabiar penintsulakoak⁵ eta inguruko herrialdeetako arabiar minorietakoak ez ezik, beren zibilizazioarekin identifikaturik arabiera hizkuntza hartu dutenak izango lirateke arabeak.

Arabiarren jatorri mitikoari dagokionez, K. a. III. urtean, greziarrek, Arabiatik, hau da, Mediterraneoz bestaldetik, nahiko hurbil zeudenei, *sarakenoi* deitzen zieten (Bosch, 2008: 34). Sarakenoi horiek Abrahamen seme Ismaelen ondorengoak ziren, eta, ondorioz, jatorriz Ismaelities izena zuten. Jatorri mitiko berdinak erlazionatzen ditu arabiarrek eta juduak, bi etnientzat Abraham baita Jaiko bakarra. (Sozomeno, 1855: 309) Horrenbestez, antzeko ohiturak izango zituzten, hala, ekialdeko herri abrahamikoek poligamia praktikatzeko zuten moduan, arabiarrek poligamoak izango ziren ere. Modu honetan, Islamak poligamia eta poliginiaren praktika arabiar hauek integratu zituen erlijio berrira, baita ondoren azalduko den arabiarren leinuen antolaketa osoa ere.

Gizarte arabiarren antolaketa sozialari erreparatuz, ordena soziala leinuak zehazten zuen, sujeta printzipala baitzen. Leinua familia erromatarraz bereizi behar dugu, ahaidetasun printzipioa aliantza eta familiari lehenetsiko zitzaizolako. Estaturik existitzen ez zen lurraldeetan klan edo tribuak antolatuko zuen gizartea eta ahaidetasunean oinarritutako sistemak, leinu zabal eta egonkorak bere horretan mantenduko zituen. Ahaidetasun sistema mundu arabiarrean agnatikoa zen, hau da, unilaterala eta patrilineala, solik aitarengandik jasotzen zutelako ondorengotza seme-alabek. Aitak zehazten zuen jatorria, eta seme-alabak jaiotakoan bere leinuaren parte izango ziren. Kognizioaren kontrakoa izango litzateke, zeinetan ondorengotza bilateralki zehazten den. Horrenbestez, ahaidetasunak lotutako talde horien kontserbazioaren arrazoi nagusia antolaketa agnatikoa zen, eta horrek aukera ematen zuen leinu, klan edo tribu bakoitzaren mugak zalantzarik gabe zehazteko. Pentsa daiteke tribu, klan eta leinuetako gizarte-zatiketa hori nomadismoa nagusi zen garai baten oinordekoa dela. Guircharden arabera (1976: 72), badirudi basamortuko bizimodu nomada zela gizarte segmentario⁶ batean odol-ahaidetasunezko taldeen garapena bultzatzen zuen elkartasun

⁵Penintsula hori Afrikako ekialdean geratzen da. Ipar-ekialdean Persiar Golkoa dago, eta hego-ekialdean Indiako Ozeanoa, garai hartan Omango itsasoa deitzen zena. Hegoaldean Adengo Golkoa dago, eta mendebaldean Arabiar golkoa, gaur egun Itsaso Gorria deitzen dena (Bosch, 1996: 33).

⁶ Botere zentralizaturik ez duen gizarte baten sistema politikoa da, eta antolakunde politikoa leinuen orekan oinarritzen da, Guircharden arabera (1976: 60).

tribalaren zimendurik onena. Nolanahi ere, eredu arabiar hau gizarte sedentarioetan oinarrizkoa izaten jarraitu zuen.

Hala ere, arabiar sistema agnatikoa erromatarrek ezagutu zutenaren desberdina zen (Guichard, 1976: 69). Erroman, emakumea senarraren klanean sartzen zen, mundu arabiar musulmanean, aldiz, ez zen hau gertatzen. Honetaz gain, arabiarrek leinuaren parte ziren emakumeekin ezkontzea nahiago zuten. Testuinguru honetan, leinuen arteko lehia ematen zen, leinu zabal eta boteretsua desiratuko zutelako patriarkek. Ohorearen printzipio arabiarrek garrantzia eduki zuen guzti honetan, gizon eta emakumeek, bakoitzak bere aldetik, funtsezko paper bat jorratuko zutelarik leinuaren ohorea bere horretan mantentzeko. Hortaz, gizarte arabiarrean, gizon eta emakumeen espazioak ondo bereizita zeuden, espazio publikoa gizonena izanik, emakumeak etxeko esfera pribatuan geratzen ziren bitartean. Gauzak horrela, leinua, sistema agnatikoa eta ohorea nahastuta gelditzen ziren, ohorea mantentzeko leinuak zuen estrategian laguntzen baitzuten.

Hiru kontzeptu hauek, leinua, sistema agnatikoa eta ohorea, klabeak dira gizarte arabiarra eta ondorengo gizarte musulmana ulertzeko. Bi gizarteak dira patriarkalak, hau da, gizartearen genero eraikuntzan oinarrituak. Gizarte-sistema honetan, gizonek emakumeen, seme-alaben eta ondasunen gaineko agintea zuten, eta horrek emakumeen mendetasuna eragiten zuen. Patriarkatuaren funtsezko ezaugarria genero-rol tradizionalen nozioa zen, gizonek emakumeen ugalketaren eta sexualitatearen kontrola baitzuten. Emakumeak bere senarraren esaneko izaten jarraitu behar zuen, ugazabaren esklabo den bezala. Beste edozein jokabide jainkozko ordenaren aurkako ekintzat hartzen zen (Maksymiuk, 2019). Hortaz, ordena hierarkikoki mantentzen zen familian. Gizonek agintzen zuten etxean, ekonomian eta politikan ere eta, bitartean, emakumeen egoera soziala ezkontzan eta seme-alabak, batez ere mutilak, hazterakoan oinarritzen zen. Gizarte honetan, emakumeen kontserbazioa klanaren barruan leinu indartsu baten seinale izango zen. Horregatik, endogamia praktikatu zuten eta lehengusuen arteko ezkontza bideragarria izateaz aparte, lehentasunezko ezkontza izango zen. Arabieraz *bint al amm*⁷ izenarekin ezagutzen dugu eta emakumeak leinuan mantentzeko funtsezko estrategia zen.

⁷ Islamak ezkontza horiek baimentzen ditu, eta Ekialde Hurbileko zenbait gizarte-testuingurutan baieztatzen da emakume batek eta bere familiak uko egiten badiote aitaren anaiaren seme batekin ezkontzeari, aitaren anaiaren eta familiaren anaiaren baimena lortu behar dutela (Eickelman, 2003: 247).

b. Poligamia eta endogamia:

Gizarte arabiarrean ohore handia zen leinu edo klan batentzat bere emazteak ahalik eta gehien gordetzea agnatizio-ahaidetasun taldean. Leinuaren ohorea eta noblezia lotuta zeuden endogamiaren praktikarekin. Ezkontza endogamikoak arrazoitzeko era, noblezia eta ohorearen ulerkerak partikularra dira. Odolaren garbitasuna zaintzeko eta familiaren ohorea aldatu gabe mantentzeko, senarrak bere lehengusina emazte gisa hartuko zuen. Lehentasunezko ezkontza honen izaera instituzionala azpimarratu beharra dago, lehengusuak lehengusu arrebarekiko eskubidea zuelako, ez baitzen osaba alaba ilobari eskaintzen ziona. Gizonak batasun endogamikoan bilatzen zuena bere maskulinitasunaren baieztapen berri bat zen; bere leinuaren kalitatearen berrespen bat (Guichard, 1976: 83-85). *Bint al amm*⁸, ezkontza mota honen ondorioz, kideen arteko loturak barrurantz biratzen zituen, unitate agnatiko txiki eta handi bakoitza ia bere baitan bildua bihurtuz. Aitaren anaiaren alabarekin lehentasunezko ezkontzak lerro agnatikoen fisioa bultzatzen zuen, eta segmentazio handiagoko talde korporatiboen eraketa eragozten zuen, genealogiak sekzio agnatikoen arteko harremanak antolatze bide bakartzat utziz (Holy, 1989: 46).

Hala eta guztiz ere, praktika poligamoek endogamiaren tasa murrizten zuen, gizon bereko emakume guztiak ezin baitziren aitaren lehengusinak izan. Mutil eta neska kopuru baliokide bat zegoen leinu baten barruan, gizon batzuek emakume bat baino gehiago zuten neurrian, gizonezkoek ahaidetasun taldekanpo hartu beharko zituzten emakumeak. Beraz, ezkontza endogamikoak arazo bat zekarren berekin. Ahaideen artean ezkonduko tribua familiartekoa bihurtzen zen guztiz. Horregatik, ezkontza endogamikoak poligamia behar zuen, poligamiak endogamiaren konpentsazioa zekarren. Bi ahizpetatik, bat endogamiaren zentzuan ezkondu behar zen, taldeak sendotasunari euts ziezaion, eta bestea exogamiaren zentzuan, taldeari aliantzak emateko poligamiaren bitartez.

c. Poligamia eta ohorea:

Lehentasunezko ezkontza endogamikoak leinuaren iraupena denboran bermatzera laguntzen zuen bitartean, bereziki ohoragarria zen ere besteen emakumeak indarrez harrapatzea⁹ edo beste leinua baino botere gehiago edukitzea haren ondasunik preziatuena osatzen zuten

⁸ Ingelesean FBD esaten zaio, Father's Brother's Daughter (Holy, 1989: 5).

⁹ Emakumeen harrapaketa arabieraz *sabi* esaten da (Guichard, 1976: 85).

emakumeak lagatzea onar zezan, hau da, ezkontza aliantzak sortzea poligamiaren bitartez (Guichard, 1976: 85). Leinutik kanpoko emakumeekin egindako aliantzak zirela-eta ezkontutako emakumeak jatorrizko tribukoak izaten jarraitzen zuten. Aitzitik, harrapatu zituzten emakumeak esklabo gisa sartzen ziren leinuan. Baina, nolana ere, elkartze horietatik jaiotako seme-alabak aitaren leinukoak ziren oso-osorik. Hortaz, leinu boteretsuenek bere emazteak leinuaren barruan mantenduko zituzten, beste leinu ahuletako emakumeak harrapatu edo ezkontza aliantzak ezartzeko kapazak ziren bitartean, hau da, poligamia praktikatzeko kapazak ziren bitartean. Leinu ahulenak euren emakumeak beste leinuetako gizonei lagatzera behartuta ikusiko ziren, leinuak bere ohorea galduz. Ohorearen printzipioarekin jarraikiz, kontuan hartu behar dira, azkenik, gizonaren eta ohaidearen arteko loturak. Zenbat eta garrantzitsuagoak izan leinuaren aberastasuna eta gizarte-egoera, orduan eta ugariagoak izango ziren ohaideak eta ugariagoak ondorengoak eta horrenbestez, leinua beste leinukiko ohoragarriagoa izango zen.

Izan ere, emakumeek ondorengotzarik transmititzen ez bazuten ere, leinuaren ohorea ez zikintzeko betebeharra izango zuten. Emakumeen ohorea, *'ird*, emakumeen kastitateaz, zuhurtziaz eta iraupenaz ari garenean erabiltzen da. Kastitaterik ezak, jendaurrean azaldutako biluztasunak eta emakumearen gatibutasunak desohorea islatzen zuen klaneko kide guztiengan, bai islamiar aurreko Arabian zein islamiar gizartean ere (Guichard, 1976; 79). Horregatik, emakume batek, bere estatusa edozein zela ere, sexu-harremanak izan zitzakeen gizon bakar batekin, geroago Koranean arautuko zen harreman baten bidez lotuta egonik, ezkontza edo ohaidetzaren bidez. Erlazio hauetatik kanpoko seme-alabak ez-legitimotzat hartuak ziren (Puente, 2007; 431). Adulterioak ohore-galtzea ekarriko luke eta, aldiz, ezkontza sistemaren arauen jarraipen egokiak leinuaren ohorea bere horretan mantenduko luke. Modu honetan, ezkontza sistemak eta poligamiak erlazio estua izango zuten arabiarren ohore kontzeptu zaharrarekin.

3.2. Poligamia mundu islamikoan:

Orain arte ikusi dugun guztia Islama existitzen ez zen garaiari dagokio. Islamari dagokionez, erlijio errebelatu eta monoteista izanik, Jainko bakarrean sinestu zuten musulmanek, eta fededunek Jainkoaren Betiereko Hitza, errebelazio eta profetia ideiak onartu zituzten.

Korana¹⁰ Mahoma Profeta bizi izan zen garaiaren emaitza osoa izan zen eta haren ideal zuzentzaileek Mahoma hil ondorengo lehen urteetan fededunen perspektibak eta ekintzak moldatzen jarraitu zituen (Donner, 2010: 56). VII. mendeko Islamaren hasierako aldi osoan, estatu islamikoaren lehen kristalizazioa gauzatu zen zeinbat aparatu administratibo instituzionalizatuz, ezkontza, besteak beste (Donner, 2021: 12). Beraz, Islama¹¹, erlijioa ez ezik, gizarte bat antolatzekeo egitura politiko bat proposatzen zuela azpimarratu beharra dago. Islamak ekarritako aldaketa iraultzat hartzen dute ikerlari batzuek (Donner, 2010: 110), aldaketa txikia izan bazen ere, ondorioak nabarmenekoak izan baitziren. Izan ere, sistema klanikoa eta tribala desagertu ez bazen ere, hortik aurrera *umma*¹²-k antolatuko zuen ordena soziala. Leinua bere horretan mantendu zen baina subjektu printzipala izateari utzi zion. *Umma*-k eta leinuak, biak batera kontraposizioan, antolatuko zuten gizarte islamikoa. Beraz, ulertu beharra dago, gizarte islamikoa egitura ekonomiko, sozial edo etikoko komunitate batek ez ezik, balioen sistema batek ere definitzen zuela, erlijioan oinarritutako eredu politiko eta kultural bat egituratzen baitu. Horregatik, musulman batek bere eguneroko bizitza indibidual eta sozialean egiten zuen ekintza orok esanahi erlijiosoa zuen (Maíllo Salgado, 1996: 12).

Arestian aipatu bezala, islamaren etorrerak arabiarren tradizioa berenganatu zuenez, leinuen lege guztiak, ohorearen printzipioa eta baita poligamia eta poliginia ere gizarte berrira artikulatuko ziren. Poligamiari dagokionez, bere praktika ez zuen erlijio Islamak derrigortzen, poligamia praktikatu ahal izateko ondo ulertu behar baita Koranak arautzen duena, Koranak bildu zituelako praktika honen mugak eta honen funtzionamendu onerako jarraitu beharrekoak. Izan ere, Koranaren arabera, lau ziren gizon libreak edo esklabuak eduki

¹⁰ *Yahiliya*, Korana esan nahi du hizkuntza arabiarrean eta ezjakintasuna eta indigentzia espiritualari egiten dio erreferentzia. Termino hori ia adiera guztietan kontrajartzen zaio Islam arabiar hitzari, eta Arabian, Mahoma etorri baino lehen zegoen gauzen egoerari egiten dio erreferentzia, hau da, islam aurreko garaiaren paganismoari eta garai hartako gizon eta emakumei (Maíllo Salgado, 1996: 263).

¹¹ Sharia Islamaren arau-sistema da, bere lege-agindua eta Jainkotiar jatorriko eskubidea da, *Allah*-k, Mahoma profetari Koranean jasotako errebelazioak eta profetaren egitate eta esaerak (hadizeak) osatzen dutena, hauek ere Jainkoaren errebelazioaren fruitutzat hartzen direlarik, Sunna osatzen dutenak. Shariaren bi iturri horiek (Korana eta Sunna) jatorrizko Zuzenbide Islamikoa osatzen dute, eta dogmari, errituei, kultu-ekintzei eta musulmanek nahitaez bete beharreko jokabide-arauei buruzko doktrina jasotzen dute (Fernandez Coronado, 2009: 126).

¹² *Umma*, musulmanen komunitatea, Profetak sortu zuen, eta erlijioak bere izateko arrazoia eratzen zuen eta gizabanakoak elkarren arteko solidarioak ziren. Beraz, *umma* antolaketa politiko eta sozialerako modu berri bat izan zen, oinarri esentziala erlijiosoa zuena. Hala eta guztiz ere, islamiar aurreko tribu antolakunde zaharreko ezaugarriak gorde zituen bere baitan. Aurreko sistemarekiko funtsezko ezberdintasuna erlijio islamikoan oinarritzen zela zen, eta ez ahaidetasunean; odolezko loturetan oinarritu beharrean, zin edo itun erlijiosoa berean oinarritzen zen (Maíllo Salgado, 1996: 251). Hortaz, komunitate islamiko honek jarraitu zuen leinu patrilinealen garrantziari eusten. Hala ere, hemendik aurrera, fedea zen leinuaren parte izateko arrazoia eta ez ahaidetasuna.

zitzakeen emazteak, ez gehiago, eta ezin bazuen lauren zaintza bermatu, emazte bakarra izango zuen.

“Casaos entonces, de entre las mujeres que sean buenas para vosotros, con dos, tres o cuatro; pero si os teméis no ser equitativos... entonces con una sólo o las que posea vuestra diestra” (Koran 4:3).

Janzkerari, janariari eta ostatuari dagokienez, gizonak berdin tratatuko zituen bere lau emazteak. Ez luke bata bestearen kaltetan pribilegiatuko, ekitatea ezinezkoa zen gaietan baino, hala nola kopulazioan eta maitasunean (Chalmeta, 1995: 42).

Gizarte islamikoak une jakin batzuetan jasan zituen zirkunstantzia bereziek, poligamiaren praktika mugatua bideragarri bihurtu zuten. Poligamia baimentzen zuen bertsoa profetari azaldu zitzaion Uhudeko guduaren¹³ ondoren, non gizon musulman asko hil ziren. Horrek kezka sortu zuen gizonik gabe geratzen ziren emakume eta umezurtz haietaz arduratzeko (Jawad, 1991: 184) Kasu honetan, poligamia juridikoki babestua egongo litzateke, emakume alargunak eta umezurtzak babesteko helburuarekin.

Badira poligamia praktikagarria zen beste egoera batzuk; hala nola, emakumea antzua balitz edo gaixo balego, ontzat hartzen zen senarrak beste emakume bat hartzea emazte gisa lehenengoarekin dibortziatu eta babes barik utzi aurretik. Era berean, onargarriagoa zen gizona berriz ezkontzea, emaztearen bizkar beste erlazio bat izatea baino, kontuan izanik Islamak legez kanpoko sexu-harremanak edozein modutan zigortzen zituela. Gainera, ez zegoen ondo ikusia gizona zelibatuan mantentzea bizitza osorako. Honen guztiagatik, poligamiaren instituzionalizazioaz eta izaera juridikoaz hitz egin behar dugu.

Poligamia bi leinu desberdinetako bi gizonen arteko truke ezkontzetan ere oso ohikoa zen gauzatzea. Gizon bat beste gizonaren ahizparekin ezkontzen zenean gertatzen zen, eta gizonetako batek bigarren emazte bat hartzea erabakitzen zuenean, beste gizonak, familiaren presioa sentitzen du bigarren emazte bat hartzeko, bi familia-egituren eta arrebaren ohorearen arteko simetriari eusteko (Al-Krenawi, Graham, Al-Krenawi, 1997: 449).

¹³ Uhudeko bataila 625ean amaitu zen. Medinako komunitate musulmanaren indar bati aurre egin zioten, islamaren profeta, Mahoma, buru zela, eta Mekako Abu Sufyan-en agindupean zegoen indar bati. Uhudeko bataila izan zen Mekako biztanleen eta musulmanen arteko bigarren topaketa militarra, Badr-eko guduaren ondoren (Donner, 2010: 46).

Emazte poligamoak elkarrekin bizi zitezkeen, nahiz eta gehienetan etxe independenteak izan, non bakoitza bere seme-alabekin bizi zen. Seme alaba guzti hauek, lehenago azaldutako ahaidetasun sistemagatik, eskubide berdinak izango zituzten, denak leinuaren parte zirelako. Horregatik, seme-alaben arteko desberdintasunak egotekotan afektiboak izango lirateke, hau da, aitarengandik jasotzen zuten tratua araberakoak, eta ez juridikoak.

Emazteentzako bizileku bereiziek, aktibitate esfera bananduak sustatzen zituzten gizon eta emakumeentzat. Emakumezkoak poligamiako erakundearen bidez tratatu txarrak jasan ez zituzten babestearren, Islamak zenbait defentsa-bide eman zizkien: lehenik eta behin, emakume batek eskubidea zuen ezkontza-kontratuan adosteko dibortzioa eraginkorra izango litzatekeela senarrak bigarren ezkontza kontratatzen bazuen. Bigarrenik, poligamia borondatezko ekintza zen eta ez zen inposatu behar. Beraz, emazteari kalte edo bidegabekeriarik egiten bazitzaion, agintari judizialetera jotzeko eskubidea zuen, babes edo dibortziorako (Jawad, 2008: 186). Guzti honekin, argi dago zein baldintza zorrotz bete behar ziren poligamia praktika guztiz islamiarra zilegia izan zedin.

4. Ezkontza sistema islamikoaren ezaugarriak:

Ezkontza, Islameko familia-zuzenbidea eremu pribatuari zegokion, pertsonen eskubideari, eta agintari erlijiosoen monopolio tradizionala zen eta Shariaren jurisdikzioaren mende zegoen. Familia zen Mahomak onartutako sozialki antolatze talde bakarra eta doktrina nagusia zen ezkontza islamiarra, *nikah*. Ezkontza kontratu pribatu bat zen eta erlijio-esanahia zuen, Koranean aipatzen baitzen. Erlijio islamiarrarentzat, ezkontza egoera perfektua zen, eta musulman gizonetako oro behartuta zegoen ondorengoen legitimazio-bidea egitera. Ondorioz, inperatibo moduko bat zen ezkontza (Chalmers, 1995: 35). Ezkontza-harreman legalak kanonizatzeko borondate koraniko sendoa, promiskuitatea eta prostituzioa arautzeko eta, bestetik, pertsona jakin batzuek Jainkoaren legeak ematen zuten estatus zibila ez galtzeko nahitik sortu zen (Puente, 2007: 432).

Islamaren etorrerarekin, ezkontzak zenbait aldaketa izan zituen, bere praktika mugatzerara arte. Ahaidetasunak ezkontza mugatuko zuen, musulman gizonari amarekin, alabekin, arrebekin, amaren eta aitaren izebekin ezkontzeko debekua, baita ilobekin ezkontzeko debekua ere luzatuko zitzaielako. Ahaidetasunaren printzipioak ez bakarrik ezkontza harremanak baita ohaidetza harremanak ere, legez kanpoko bihurtu zituen (Puente, 2007: 416).

“Se os prohíben vuestras madres, hijas, hermanas, tías paternas, tías maternas, las hijas de vuestro hermano, las hijas de vuestra hermana, vuestras madres de leche que os amamantaron, vuestras hermanas de leche, las madres de vuestras esposas y las hijastras que estén bajo vuestra protección*, que sean hijas de mujeres que hayáis tenido y con las que hayáis llegado a cohabitar, porque si son de mujeres que habéis tenido con las que no habéis cohabitado, entonces no hay inconveniente” (Koran 4:23)

Ezkontza islamikoaren funtzioa Koraneko hurrengo *aley*a-n islatzen da: “Casaros con mujeres capaces de engendrar hijos, no os caséis con viejas o estériles” (Chalmeta, 1995: 38). Hortaz, oinordekoak sortzea litzateke ezkontzak betetzen zuen funtzio soziala.

Gizarte islamikoan ezkontza kontratua lekukoen aurrean sinatu beharra zegoen, ezkontza kontratuaren baldintzetako bat, pubertaroan finkatzen zen ezkontideen gaitasun fisiko eta juridikoa ziren, pertsona gaixotuak ezin zirelako ezkondu. Gainera, senarra eta emakumea parekoak izan behar ziren. Maila sozialeko baliokidetasunaren kontzeptua emakumearen babesle gisa pentsatuta zegoen, emakumea “beheragoko” batekin ezkon ez zedin. Arabe harrotasun zaharra kasu jakin batzuetan berragertzen da leinuaren garbitasuna zaintzeko. Honekin, pertsona jakin batzuek Jainkoaren legeak ematen zien estatus zibila gal zezaten eragozteko zen helburua (Chalmeta, 1995: 40).

Emakumearen tutorearen baimena beharrezkoa zen ezkontza legitimoa izateko. Tutorea egongo ez balitz, ezkontza ez litzateke legezkoa izango. Emakumearen adostasuna *wali*¹⁴ edo mandatariak transmititzen zuten eta hauen presentzia ere beharrezkoa zen kontratua egiterakoan, ezkontza egin izanaren fede emanez.

“Yahya me relató de Malik que había oído que Sa’id Ibn al-Musayyab había dicho que Umar Ibn al-Jattab dijo: “Una mujer sólo puede casarse con el consentimiento de su guardián, de alguien de su familia con buen criterio, o del Sultán” (Al-Muwatta: 299).

¹⁴ Zaindaria, beste pertsona baten erantzukizuna duena, emakumea ezkontzera daraman pertsona izendatzeko erabiltzen da normalean (Malik, 1999: 579).

Behin ezkontza burututa zegoenean, senarrak ezkontza-ahala hartzen zuen emaztearengan, eskubide hori ezkon-dohainaren¹⁵ truke ematen ziola.

Yahya me relató de Malik de Ibn Shihab que Zayd Ibn Zabit dijo: “Cuando un hombre lleva a su esposa a su casa y cohabita con ella la dote es obligatoria.”

(Al-Muwatta: 301)

Gizonak emakumeaz gozatzeko eskubidea eskuratzen zuen, eta bere kargura geratzen zen kalte-ordain bat ordaintzea eta bere elikadura, jantziak eta ostatua zaintzeko betebeharra. Malik eskolaren arabera, birjina batek ez zuen bere jabetza izateko eskubiderik bere etxean sartzen zen arte, eta bere egoera (gaitasuna, heldutasuna, etab.) ziur ezagutzen zen arte, hau da, ezkondu arte (Al-Muwatta: 299).

Azkenik, ezkontza desegin zitekeen bi ezkontideetako baten heriotzagatik, gaitzespenagatik edo ebazpen judizialagatik (Chalmeta, 1995: 36-41).

Kristautasunak dibortzioa debekatu zuen bitartean, gizarte musulmanak dibortziazeko aukera islam aurreko garaitik mantendu zuen. Pertioko Sassandarren garaian, ezkontza desegin zitekeen, bai elkarren arteko adostasunez, bai gizonaren erabaki bakarrez. Senarrak dibortzioa emaztearen baimenik gabe eska zezakeen, beste gizon batekin sexu-harremanak izan zituenean, senarrari hilekoa ezkutatzean, magia praktikatzen zuenean edo antzua zenean. Dibortzio legeek, oro har, dibortziazeko emaztearen gaineko kontrola ematen zioten senarrari (Maksymiuk, 2019). Gizarte islamikoan, dibortzioa praktikagarria zen, arabiar tradizioetik integratu zelako gizarte berrira. Koranak bere praktika arautu zuen, hurrengo *aley*-n ikus daitekeen bezala:

“¡Profeta! Cuando divorciéis a las mujeres, hacedlo de manera que estén en disposición de empezar su período de espera. Guardad el período de espera y temed a Allah, vuestro Señor. No las hagáis salir de sus casas ni tampoco salgan ellas, a menos que hayan cometido una indecencia evidente.” (Koran 65:1).

¹⁵ *mahr*, emaztearen estatusaren araberakoa izan behar zuen dotea (Chalmeta, 1995: 35)

“Yahya me relató de Malik de Ibn Shihab que Marwan Ibn al-Hakam decidió que si alguien hacía tres declaraciones de divorcio, había divorciado irrevocablemente a su esposa” (Al-Muwatta: 314).

Horretaz gain, ezkontza mistoari dagokionez, zuzenbide islamiko klasikoak aukera ematen zion gizonezko musulmanari emakume musulmanarekin ezkontzeko edo liburuko erlijioen bateko kide zen emakume kristau eta juduekin ezkontzeko. Hala ere, Maliken arabera, *Allah*-k *halal*¹⁶ egin zuen esklabu fededunekin ezkontzea, eta ez zuen *halal* egin esklabo kristauekin edo Liburuko Jendearen ezkontzea. Malikek esan zuen:

“Las esclavas cristianas o judías son halal para su dueño por el derecho de posesión, pero la relación sexual con una esclava mazdeista no es halal por el derecho de posesión” (Al-Muwatta: 308).

Haatik, izan zen inoiz kalifak atzerriko esklaboek erakarri zituztela, batez ere esklabo kristauek. Adibide ezagunenetako bat Subh da, al-Hakam kalifaren *jawari*-a, al-Andaluseko kalifa handienetako bat. Subh-ek, al-Hakam kalifa liluratu ez ezik, lortu zuen arrakasta izatea *umma*-ren gaineko boterea zuzentzen (Mernissi, 1993: 46).

Esklabuekin eduki daitezkeen ezkontza erlazioei dagokionez, Maliken arabera, gizon libre bat ezin zen esklabu batekin ezkondu behar emakume aske batekin ezkondu bazitekeen, eta ez zuen esklabu batekin ezkondu behar emakume aske bat onartu ezin zuenean, larrua jotzeko beldur ez bazen. Hala zen *Allah*-k, honela ziolako bere liburuan:

“Si vuestros medios no os permiten casaros con mujeres creyentes, que sean *muhsanat*, tomad esclavas que sean creyentes que vuestras diestras posean” (Al-Muwatta: 306).

5. Poliginia eta ohaidetza

Poliginia, poligamiaren antzera, gizarte musulmanera integratua geratu zen aurreko kulturaren tradizioetik hartu baitzuen Islamak. Poliginia-sistemak bere mugak dituela ikusiko

¹⁶ Shariak baimendutakoa (Al-Muwatta: 565).

dugu, faktore historikoen eta kulturek markatuak. Muga hauek Koranari esker ezagutzen ditugu.

Ohaidetza eskola juridiko islamiko guztiek eztabaidatu eta araututako ondorio legalak zituen harremana zen. Izan ere, ohaidea esklabo sexuala zen, zenbait gaitan eskubideak oso murriztuta zituena eta legezko emazte libreek baino jarduteko gaitasun txikiagoa zuena. Estatu-aurreko gizarteetan, etnografoek normalean bigarren mailako emaztetzat hartzen zituzten ohaideak, eta emakume esklaboek, ohaidetzat hartuta, askatasun estatusa lortzen zuten halako elkarte bidez, eta haien seme-alabak legitimotzat hartzen ziren gehienetan (White, 1988: 542).

Islamak ez zituen murriztu gizonak izan zitezkeen sexu-harremanak ezkondu zegoen bitartean; aitzitik, ohaide kopuru mugagabea izateko aukera ematen zion, eta horiekin askatasun jakin batzuk har zitezkeen: adibidez, ez zuen baimenik eskatu behar sexu-praktika jakin batzuk mantentzeko, edo bere kabuz erabaki zezakeen kontzepzioa ez gertatzea (Puente, 2007: 410). Emakume baten esklabo-kondizioa ez zen nahikoa ohaidea izateko, baizik eta gizon baten ohaidea izan zitezkeen erabat berea zuen esklabo bat, baldintzarik gabea. Ohaidea haurdun geratzen zenean, funtsezkoa zen aitatasuna zehaztea; izan ere, haurdunaldiarekin eta aitatasunaren aitorpenarekin, ohaideak legezko estatus berri bat hartzen zuen, *umm walad*¹⁷ delakoaren estatusa, hain zuzen ere (Puente, 2007: 413). Al-Khayzuraren adibide historikoa oso esanguratsua da. Al-Khayzuraren izan zen karrera politikoa bilatu zuen lehen esklabu sexuala. Inperio Musulmana denbora luzez gobernatu zuen, 775. urtetik 789. urtera arte, bere senar, al-Mahdi, abbastarren hirugarren kalifa eta bi seme kalifen erregealdian, al-Hadi eta Harun al-Rashid. Bere agintean *umma* eta inperioaren arazoak zuzendu zituen. Hain erabaki politiko garrantzitsuak hartu zituen, zeintzuk abbastar dinastiaren eta Islamaren historiaren garai garrantzitsuetan bere marka utzi zuela esan genezakeela. Yemengo Jurash izeneko eskualde batean jaio zen libre, eta al-Khayzuraren Bagdadeko jauregira iritsi zen esklabo gisa. Beduino batek eraman zuen Mekara, eta han saldu zuen. Esklaboek merkatutik, al-Mansur kalifaren, al-Mahdiren aitaren jauregira iritsi zen eta kalifaren semeak esklabu sexual gisa

¹⁷Ama ohaideak eskubide ugari eskuratzen ditu, ohaide normalak ez dituenak. *Umm walad* ezin da bere semearen aita ez den beste gizon baten ohaidea izan, nahiz eta hau jaio ondoren jabeak berarekin sexu-harremanak izateari utzi. Askatasunaren eta esklabutzaaren arteko egoera batean geratzen da. *Umm walad* izanez gero, jabeak ezin du besterendu, eta zerbitzuak ere ezin zaizkio alokatu. Semearen izaerari dagokionez, aske jaiotzen da. Horrenbestez, *umm walad*-eko estatutuak, kategoria juridiko islamiar hutsak, emakume esklaboari seme-alaba libreak izateko eskubidea ematen zion, heredatua izan zitezkeen guztiaren herentzia hartuz, ama aske baten seme-alabak bezala, baita aberastasuna eta boterea ere, askotan kalifatara iristen zirenak (Maillo Salgado, 1996: 250).

hartu zuen eta bi seme eman zizkion, kalifatoaren ondorengotza hartuko zutenak. (Mernissi, 1993: 41). Historia musulmanean, ama esklabuak zituzten kalifen kopurua ikaragarria da. Hau posible izan zen, Islamak *umm walad*-aren estatusaren berrikuntza ezarri zuelako. *Umm walad* baten semea libre jaioko zen nahiz eta ama esklabua izan. Senarrak ezin zuen emakume esklabua saldu haurra jaio ondoren, emakumea aske geratzen zen eta *umm al-banin*, ama izan den emazte librea, baino askoz estatus hobea lortu zezakeen. *Umm walad*-eko seme-alabek, emazte librearen seme-alababek bezain eskubide eta pribilegio berberak zituzten. Aitaren ondasunen zati bat beste haurrena bezalakoa eta shariaren aginduen arabera oinordetzan har zezaketen. *Jawari*¹⁸-ek ere ziurtatuko zuten seme-alabek guztia jarauntsi ahal izango zutela, tronua barne (Mernissi, 1993: 51-57).

Beraz, musulmanari zilegi zitzaion ezkontzaz kanpoko erlazio bakarra ohaidetza zen. Ezkontzarako edo ohaidetzarako legezko eragozpenak, iraunkorrak edo aldi baterakoak, berdinak ziren. Muga iraunkorren artean, ondorengoak, ezkontzagatiko ahaidetasuna eta esne-ahaidetasunak baldintzatuko zuen. Denbora bateko debekuak, kopuruagatik, konbinazioagatik, esklabotzagatik, fede faltagatik, gaixotasunagatik, *idda*¹⁹ delakoagatik eta gaitzespen hirukoitzagatik ezarriak ziren. Horregatik, gizon batek ezin zuen bere emaztearen esklabo bat ohaidetzat hartu. Berarekin sexu-harremanak izango balitu, fornikaziotzat hartuko litzateke. Gainera, ez zuen izan behar aitaren ohaide izan zen esklabo bat ohaidetzat. Gizon libre batek edo gaitasun ekonomiko nahikoa zuen esklabo batek esklabo bat erosten zuenean, eta harekin oheratzean ohaide bihurtuko balu, ezingo litzateke berarekin ezkondu. Ezkontzaren bidez esklabo horrek bere ohaide izateari lioke, aurretik, berarekin batera izandako sexu harremanengatik gizalegezko bekatua egingo zuelarik. Debeekatuta zegoen ohekidearen propietatea partekatzea, zaila izango litzatekeelako seme-alaben aitatasuna zehaztea (Puente, 2007: 415-430).

Poliginia aberastasun nahikoa zuten gizon gehienek praktikatzen zuten ondorengoak lortzeko, horrela, adineko gizonak emazte gehiago izaten zituzten. Poliginia, beraz, aberastasunaren metaketan oinarritzen zen gehienetan, eta aparteko emazteak aktibo ekonomikoa ziren lanari

¹⁸ Emakume esklabuak. Batzuetan, *jawari*-ak kalifari eskaintzen zitzaizkion konkistatutako botinaren zati gisa; besteetan, kalifarekin mantentzen zuten harremana hobetzea espero zutenek bidaltzen zituzten opari gisa; eta, jakina, gehienetan, talentu apartak zituztelako erosten zituzten. Bere gaitasun intelektualak garatzeko heziak ziren, hala nola, *fiqh* (ezagutza erlijiosoa) edo poesia irakasten zitzairen, edo kantatzeko bere talentu musikalak hobetzea izan ziren emakume horiei irekitako bide bakarrak (Mernissi, 1993: 54).

¹⁹ Emakumearen alarguntasun edo gaitzespenagatik legezko itxaronaldia, hiru hileko aldiak irauten duena. *Idda* igaro eta gero emakumea berriz ezkon daiteke baina ez lehenago, lehenengo lotura apurtuta egon behar da bigarren bat osatzeko (Chalmeta, 1995: 42).

zegokionez. Poliginia gero eta aberatsagoa ziren familia eta anaiartekoen defentsarako izan zitekeen. Izan ere, maiztasun handiko poliginia iragartzen zuten beste faktoreak talde patrilokalak eta harrapakinen edo gatibuen aldeko gerrak ziren, poliginia aliantza politikoak hedatzeko eta egonkortzeko bide bihurtuz. Arau sozial eta estratifikazioan oinarritutako arau kulturelek mugatzen zuten poliginiaren maiztasuna (White,1988: 544). Honek guztiak ohorearen printzipiora garamatza berriro ere, poliginia atxikitzen edo lortzen den klase edo mailarekin lotzen baitzen. Aberastasuna berenganatzen zen, eta emazte gehigarriak izaten ziren aberastasun-iturri. Azkenik, poliginia anaiarteko interes taldeekin, kapital ondasunekin, gizonezko gerlariekin, aintza militarrekin, gizonen hiperoldarkorrekina eta horiek sortzen zituzten haur heziketa ereduarekin, gerran emazteak edo ohaideak harrapatzearekin, eta gizonezko zaharrago eta aberatsenek ezkontza-loturak monopolizatzekeo zuten joerarekin lotu behar dugu. (White, 1988: 558)

6. Ondorioak:

Puntu honetara iritsita, lanaren helburuari berriro heldu behar diogu. Aztergai izan dugu, mundu islamikoan existitzen diren bi ezkontza sistema desberdinak: ezkontza sistema islamikoa, bere eredu poligamoarekin, eta ezkontza sistema kristaua, non ezkontza monogamo den. Lan honetan erakutsitakoarekin, bistan da familia nuklearreko kideen eta familia poligamoko kideen artean sortzen diren harremanak ezin direla alderatu. Sexu-gogobetetzeak ez du berdina funtzionatzen, sexu-esklusibotasuna falta da kasu islamikoan, ondorengoen sozializazioa ez da berdina gertatzen, eta alderdi ekonomikoak ere ez dira berdina gauzatzen (Gómez Pellón, 2017: 16).

Ikusi dugu, Islamak leinu handiak eta ondorengo ugari dituzten ordena sozialak babesten dituela, eta, aldiz, sistema monogamo, familia nuklearrean oinarritzen dela eta emakume bakar batek izan ditzakeen seme-alaba kopurua murriztagoa dela. Sistema agnatiko arabe-musulmanaren arabera, emazteak ez dio ondorengotzarik transmititzen seme-alabei, horrenbestez, nahiz eta esklabu baten seme-alabak izan, hauek libreak eta legitimoak izango dira, aitaren leinuaren parte bihurtuz eta beste emakume librean seme-alaben eskubide berdina izango dituzte. Sistema greko-latinoan, berriz, ez da hau gertatzen, kristautasunak ekarritako kognizio sistemak bilateralki transmititzen duelako ondorengotza eta horregatik, soilik emazteen seme-alabak izango lirake legitimoak. Hori dela medio, aldea dago

jaraunspena hainbeste semeen artean banatzean edo seme kopuru mugatu baten artean banatzean. Honengatik, Atenastarrak ez zeuden familia zabalen alde eta familia nuklearrak gehien babestuko duena ondare-antolamendua izango da.

Edonola ere, bi kasutan adulterioaren kontzeptua berdina da emakumeentzat, emakumeek gizon bakarrarekin eduki ditzaketelako sexu-harremanak. Kristautasunaren kasuan ezkontza erlazioaren bitartez soilik, eta mundu islamikoan ezkontza eta ohaidetzaren bitartez. Bietan emakumeek eskusibotasuna zor diote gizonari, fidelotasuna emakumeen bertutea izanik. Hala, gizonen ohorea bere horretan mantentzen edo areagotzen laguntzen dute. Bi gizarteetan gizonen eta emakumeen espazioak ondo bereiztuta daude.

Honetaz gain, ektuktura patrilinealen sendotasuna ez aldatzeko helburuarekin, musulmanek poligamia eta ohaidetza praktikatzten dituztela esan dugu. Leinu handien sendotasuna endogamian eta arabiar ohore printzipio zaharrea oinarrizten dela ikusi dugu. Ondorioz, poligamia eta poliginia sistema endogamoarekin eta baita arabiarren ohore kontzeptu zaharrenekin ere bat egiten dutela argi geratu da, leinu aberatsenak beste leinuetako emakumeen hartzaile izango direlako eta leinu ahulenak behartuta ikusiko direlako euren objekturik preziatuenak igortzera.

Dena dela, bi sistema ereduena izaera instituzionala bistakoa da. Bai poligamia zein monogamia juridikoki babestuak daude, arau eta lege zehatzek mugatzen dutelako bere praktika. Izaera honek ezkontzak ordena sozial bat eratzen duela ondo erakusten du, hortaz, esan gabe doa, ezkontza ereduak gizarte baten ordea soziala egituratzen dutela.

Amaitzeko, lan hau, poligamiak eta monogamiak sortzen dituzten gizarte ereduak aztergai dituzten ikerketa lanetan oinarritu da, hala, ez du ezer berririk asmatu. Horregatik, etorkizuneko lanetan, interesgarria izango litzateke beste ikuspuntu desberdinak gehitzea edo gaiari beste ildo batetik heltzea. Ikerketaren erdigunean ezkontza jarri beharrean, ekonomia jardueren garrantziazetik eta jabetza kontzeptutik jorratu zitekeen gaia. Honekin, azkenengo ideia bat gehitu ahal genioke lanari: poligamia giza baliabideak garrantzitsuenen artean dauden gizarte-sistemekin lotuta dago. Aitzitik, lurak edo jabetza pribatuko formak nagusi diren kasuetan, familia nuklear monogamoak dira nagusi (Al-Krenawi, Graham, Al-Krenawi, 1997: 447).

7. Bibliografía

- Al-Krenawi, A., Graham, J. R. eta Al-Krenawi, S. (1997). Social work practice with polygamous families. *Child and Adolescent Social Work Journal*, 14(6), 445-485.
- Beard, M. (2015). *SPQR, una historia de la antigua Roma*. Crítica.
- Bosch, J. (2008). *Breve Historia de los Pueblos Árabes*. El perro y la rana.
- Cameron, A. (1993). *El mundo mediterráneo en la antigüedad tardía (395-600)*. Crítica.
- Chalmeta, P. (1995). El matrimonio según el Kitab al-Wata Iq de Ibn al-Attar (s. X): análisis y observaciones. *Anaquel de Estudios Árabes*, 6, 29-70.
- Donner, F.M. (2010). *Muhammad and the Believers at the Origins of Islam*. Harvard University Press.
- Donner, F.M. (2012). "Introduction. The Articulation of Early Islamic State Structures". In D. Fred M. (Ed.), *The Articulation of Early Islamic State Structures* (282-295. or.). Farnham & Burlington, Ashgate.
- Fernandez Coronado, A. (2009). Matrimonio Islámico, orden público y función promocional de los derechos fundamentales. *Revista Española de Derecho Constitucional*, (85), 125-156.
- Glazebrook, A. eta Olson, K. (2014). Greek and Roman Marriage. In T. K. Hubbard (Ed.), *Greek and Roman sexualities* (69-83. or.). Willey Blackwell.
- Goldfeder, M. (2013). The story of Jewish polygamy. *Columbia Journal of Gender and Law*, 26(2), 1-25. <https://doi.org/10.7916/cjgl.v26i2.2689>
- Goody, J. (2001). *La familia europea: ensayo histórico antropológico*. Crítica.
- Guichard, P. (1976). Parentesco agnaticio y endogamia tribal en la civilización árabe-beréber tradicional. In *Al-Andalus: estructura antropológica de una sociedad islámica en Occidente* (55-103. or.). Barral.
- Guillén, J. (1997). *Urbs Roma, I: la vida privada*. Sígueme.
- Holy, L. (1989). *Kinship, honour and solidarity: cousin marriage in the Middle East*. Manchester University Press.
- Jawad, H.A. (1991). Women and the cuestion of polygamy is Islam. *Islamic Quarterly*, 35(3), 181-190.
- Lévy Strauss, C. (1969). *Las estructuras elementales del parentesco*. Paidós.
- Maíllo Salgado, F. (1996). *Vocabulario de historia árabe e islámica*. Akal.

- Maksymiuk, K. (2019). Marriage and divorce law in Pre-Islamic Persia: legal status of the Sassanid' woman (224–651 AD). *Cogent Arts & Humanities*, 6(1). [10.1080/23311983.2019.1703430](https://doi.org/10.1080/23311983.2019.1703430)
- Mernissi, F. (1993). *The forgotten queens of Islam*. University of Minnesota Press.
- Philips, A. B. eta Jones, J. (2005). *Polygamy in Islam*. International Islamic Publishing House.
- Puente, C. (2007). Límites legales del concubinato: normas y tabúes en la esclavitud sexual según la “Bidaya” de Ibn Rusd. *Al-Qantara*, 28(2), 409-433.
- Scheidel, W. (2011). Monogamy and Polygyny. In B. Rawson (Ed.), *A companion to families in the Greek and Roman worlds*, (108-115. or.). Wiley-Blackwell.
- Vial Dumas, M. (2015). Notas sobre el matrimonio en oriente y occidente cristiano durante la Antigüedad tardía y el Alto Medievo. *Ivs Fvgit*, 18, 141-165.
- White, D. (1988). Rethinking polygyny: co-wives, codes and cultural systems. *Current Anthropology*, 29(4), 529-558.

ITURRIAK

- 1) KORANA Melara Navío, A.G. (1998). *El Corán: traducción comentada*. Nuredduna.
- 2) AL-MUWATTA Malik, I. (1999). *Al-Muwatta*. Junta Islámica.
- 3) SOZOMENO Sozomen (1855). *The Ecclesiastical History of Sozomen*. Henry G. Bohn.